

1.1. Aitzinsolasa

Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren (EHHA) bederatzigarren liburukira heldu gara honekin. Biderik gehiena egina dugu, eta behin mendeurrena iraganez gero arin eta biziro emango diogu akabera.

Liburuki honek Atlas inkestaren 58.etik 66.ra arteko gaiak hartzen ditu barru. Gain-gainetik, giza gorputza (58), giza gorputzaren osagai, atal eta adarrak (59), elikadura (60), janzteia (61), soinekoak (62), orrazkera (63), oinetakoak (64), sexua eta ernalketa (65) eta haurtzaroa, seintzaroa (66). Bistakoa denez, gai funtsezkoak guztiak gizakiontzat geure bizitzarako.

Gai nagusien barruan ikertu diren kontzeptuak ez dira izen kategoriak soilik, *buru, ile* edo *abarka* gisakoak; prozesuen adierazle diren aditz kategoriak ere barnean dira, eta ugariak bestalde, *entzun, hazka egin* edo *etzan* modukoak; kualitate adierazle diren adjektibo kategoriakoak ere hor dira, *beldurti, beltzaran* edo *hordi* bezalakoak, eta azkenik, adberbio kategoriako batzuk ere ez dira falta, *bilozik* edo *oinutsik* erakoak.

Gai arlo nagusiotatik lehen biak dira galdesortan kontzepturik gehien bereganatzen dituztenak: buruari dagozkionak eta giza-soinari, giza gorputzari doazkionak. Elikadurari, jan-edanari buruzkoa guztiz labur garatua dago hemen, zeren lehenagoko ataletan -47, 48, 49, 50, 51, 52- batik bat edo abereei edo landareei dagozkienetan zuzen edo zeharka aipatuak direlako jadanik asko. Eta beste gai eremu batzuekin ere antzera gertatzen da.

Hizkuntza atlasa izanik eta gaien orokortasunaren ikuspegiaz atondua, ezinbestekoak ditu muga batzuk, entziklopedia batek baino askoz estuagoak: lexikografia alderdiko interesa izan da nagusi, batetik, eta giza pentsamenduaren kontzeptu oinarrizkoak eta tradizioko jakintzari atxikiak daudenak, bestetik.

Giza gorputzaren kontzeptu nagusiak orokorrak, oinarrizkoak eta aintzinatik datozenak direnez gero, euron euskarazko izenak ere bateratu samarrak dituzte. Hala gertatzen da *buru, belarri, begi, hortz* -sartaldean

hagin sinonimo duela-, *ile* -ekialdean *bilo* sinonimo eta sartaldean *ule* aldaera dituela-, *bizar, heste, negar -nigar* aldaera duela ekialdean eta *malko* sinonimo erdialdean- eta beste anitzekin. Esanahi esparru mugatuagoko kontzeptuetan izendapen nahasiagoak edota anitzagoak ageri dira, aldiz. Kasurako, *bekain* eta sartaldeko *betule* izenen artean gertatzen den kontzeptu gurutzatze nabarmena. Aditz bidez adierazitako prozesuetan dibertsitate handiagoa ageri da orohar. Bitasuna, hirutasuna edo aniztasuna dira hainbat kontzepturen ezaugarri nagusi. Hala, *entzutea* bezalako funtsezko kontzepturako *entzun* eta *aditu* hitzak ditugu elkarren lehian.

Lexikografia mailako fenomeno askoren adierazgarri dugu orokorrean Atlas, behin baino sarriago aipu ukan dugunez. Kontzeptu beraren izendapen diferenteek erakusten dizkigute maiz fenomeno horietariko batzuk, hor-hemengo izendatzeak konparatuz. Bat edo beste aipatzeko, erdaratiko maileguen sarrera eta erabilera norainokoak diren garden ageri da zenbait kontzeptutan, literatura idatziak edo estilo liburuek eskaintzen ez duten objektibotasunez: *pista/makar* edo *oker/tuerto* izan daitezke eremu banaketaren bi adibide egoki. Izen beraren aldaera banangoen hedadura neurtzeko ere era bikaina eskaintzen digu maiz; hala, *muki* eta *moko* hitzen artekoa.

Gramatika kategoria diferenteen adierazle diren hitzak berariaz seinalatzeko ahalegin berariazkoa egin da mapen elaborazioan. Hala, barbarako, *itsu* hitzaren legendan hiru kategoriatan markatzen da hitz hau: *itsu bat* (izena), *itsua da* (adjektiboa), *itsurik egon da* (adberbioa).

Legendaz hornitzea kontzeptu bakoitza ez da beti erraz gertatzen. Batzuk emankorrago gertatzen dira lekuko hitz jarioan, baina beste batzuk urri. Ahalegin egin da betiere, dagoen inguru-informazioari zukua ateratzen: errefracuak direla, esaerak direla, informazio osagarri adierazgarria dela, gramatika intereseko kontestua dela... Diren solasaldiez ahalik gehien

baliatzen saiatu gara, betiere orrien luze-zabalak eskaintzen duen neurriaren barruan. Etnotestuak ohi deritze legendako transkripzio horiei, eta garrantzia apartekoa dute gure aburuz informazio osagarri gisa, Atlasaren ardatza "hizkuntza" den arren berez.

Tradizioz transmititu den herri-hizkeraren lekuko da Atlasak -eta hala behar du izan- , bere muga guztiekin bada ere; hizkuntza naturalaren ispilu. Ahozko hizkuntzaren ispilu objektiboa izatea du helburu, beronen balio eta muga guztiekin; baina balioak handiagoak direla, mugak baino.

Batetik, euskaraz bizi izan den gizartearen -edo gizarteen- bizimodua erakusten digute; eta era berezi batez, izan dituzten harremanak -zeinekin gehiago, zeinekin gutxiago-, norako joerak izan dituzten eta nondiko eraginak.

Bestetik, literatura landuaren eta hizkera aratuaren aurrean, kontraispilu moduan jokatzeko Atlasak. Maiz erakusten digu zertan datozen bat eta zertan diren bereiz hizkuntza formala eta hizkuntza naturala. Eta horrek eskain diezaguke bidea kasu batzuetan, zertan hurbiltzea komeni den ahozkotasanaren iturrira, idatziaren sormen indarrari ezer kendu gabe.

Euskaltzaindiaren mendeurrenaren atarian gauden une hau geure iturri eta zimenduei so egiteko beta ona izan daiteke, berariaz gure erakundearen sorreran dagoen R. M. Azkueren emaitzari erreparatzeko, berariaz atlasgintzan dihardugunoi. Dialektologiaren ikuspegitik ezinbesteko obra dugu haren hiztegi hirueledun nagusia. Hura izan zen, garaiko bitarteko urriekin, hitz eta aldaera bakoitza non entzun edo jaso zuen horren zehaztasun handiz adierazi zigun lehena. Larramendi, Añibarro, Bonaparte, Uriarte eta beste lexikografo on batzuk izan zituen aurretik, hizkera eta dialektoetan zein hitz non adierazteko aitzindari gisa, baina Azkue izan dugu zimendu sendoak ezarri zituena euskal lexikografiaren eremu-banaketan; Azkue, Euskaltzaindi honen sortzaile nagusia. Azkue izan genuen, gaurko Hizkuntza Atlas honen lehen abiapuntu urratsak eman zituena ere.

Geure ardatz-ildoei tinko eutsiz, iritsi da momentua, Atlasaren ondarea sareko biderik aurreratuenek ustiatzen hastekoa, eta Euskaltzaindiak, mendeurrenaren kariatara, berea duen altxor berdingabe hau etorkizuneko euskal hizkuntza landuaren aberasgarri erabil dezan, gainerako hizkuntza corpusekin batera.

Adolfo Arejita
EHHA-ren zuzendari akademikoa
2018-02-09